

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2959

EBAZPENA, 2013ko ekainaren 19koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, Zientzia, Kooperatiba-Ikerketarako Zentroetako txertatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko Agenteei laguntzeko programa arautzen duen Aginduak ezarritako esparruan 2013ko ekitaldirako laguntzetarako deialdia ezagutarazten duena.

Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko abuztuaren 4ko Aginduak (2008ko abuztuaren 21eko EHAA, 158. zk.), Zientzia, Kooperatiba-Ikerketarako Zentroetako txertatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko Agenteei laguntzeko programa arautzen du.

Agindu horren 7. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, bidezko da bertan finkaturiko laguntzetarako deialdia egitea 2013ko ekitaldirako eta horretarako beharrezkoak diren arauak ematea.

Adierazitako laguntza horiek emateko ekonomia-baliabideak Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan ezarritako dagozkien aurrekontu-partidetatik aterako dira.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 7. artikuluan ezarritako ahalmena erabilita, hau,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuak 2008ko abuztuaren 4an emandako Aginduaren bitartez arautu zen Zientzia, Kooperatiba-Ikerketarako Zentroetako txertatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko Agenteei laguntzeko programa. Agindu horretan, laguntza batzuk aurreikusita zeuden. 2013ko ekitaldirako laguntza horien deialdia egitea da ebazpen honen xedea.

Diru-laguntzen gai diren jarduerak 2013ko ekitaldian eramango dira aurrera.

Deialdia finantzatzeko, guztira 8.000.000 euro bideratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horri dagokionez ezarritako aurrekontu-kredituaren arabera.

Deialdi honi lotuta, gehienez jota eta guztira emango den diru-laguntzen zenbatekoa ez da izango artikulua honetan finkatutako diru-kopurutik gorakoa, edo, indarrean dagoen legeriari jarraituz, kredituen arteko loturarik edo aurrekontu-aldaketarik badago, lehengoa eguneratuta sortutako diru-kopurutik gorakoa, deialdia ebatzi aurretik. Kasu horretan, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordeak ebazpena emango du aurreko guztiaren berri emateko.

2. artikulua.– Eskakizunak.

Aipatutako aginduaren 4. artikuluan ezarritako baldintzak bete behar dira, Zientzia, Kooperatiba-Ikerketarako Zentroetako txertatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko Agenteei laguntzeko programa arautzen duen Aginduan aurreikusitako laguntzak jaso ahal izateko.

3. artikulua.— Eskaerak eta epeak.

1.— Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak eskabide- eta inprimaki-ereduak eskainiko ditu Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea bitartez (SPRI), edo bestela www.euskadi.net/industria web-orrian eskura daitezke eredu horiek, behin Berrikuntza eta Teknologiako sailburordeak laguntzen deialdiaren Ebazpena eman ondoren.

2.— Eskabideak eta gainerako agiri osagarriak, SPRI, Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatean aurkeztu beharko dira (Urkixo Zumarkalea 36, 4. solairua, Bizkaia Plaza eraikina, Bilbao), bai zuzenean, bai Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako bideren bat erabilita.

3.— Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da, eta 2013ko uztailaren 30ean amaituko.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean ekarriko ditu ondorioak agindu honek.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Deialdi-ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 19a.

Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburordea,
ESTÍBALIZ HERNAÉZ LAVIÑA.